



Jon anaya ta Josu Aura



ENDIK be esana dot; Jon anaya agurgafiak aspaldiz gomuta aitzu-eziña ekañen gogotan. Amabost urteko zala, mendian agertu yakon Ume zoragafiaren gomuta. Biotza Beraganako maitasunez bolbol; itz oneik «Egun ontan jai andia egingo daustazu» etxakozan egundo gotik aldendu. Erdainkuntza-eguna zan jai andiagaz goretsi bear ebana. Ta, maitetasun-suak eraginda, Josu'ren agindua betetako bide egoki bila ebiñan, gau ta egun.

Jaunak laster aukeratu eutson abagune oba-eziña. Lekaretxian (konbentuan) Josu Umearen iru iduri egozan. Bat burdin orizkoa, Aztegi'ko otoitokian, ondo apaindua ta obeto jauretsia, lekaidegeyak onetarako asmariak izan oi dira-ta. Bigafena, abestegian (koruan); irudi onen ardura eleiz-zañak izaten eban; jai andienetan, txukun baxen ederto apaindurik, opalmai nagusian ipinten eben. Irugañena, atzenez, beste otoitoki bateko opalmai edo aldarán aurkitzen zan; onek ezeban nok zaindu; noz-edo-bein izan ezik, etzan iñor beragaz gogoratzen; galduaren antza emoten eban.

Jon anayak, bafiz, irugañena eban gogo beroz maite; bera egoan otoitoki edo eleizatxora sartzen zan bakotxean biziro zauzka ebilkion biotza. Betarte argi, gozo ta samuñez begiratzten eban, eta Josu'ren iruditxo au galduta letxe egoala ta gattetan agiri izan yakonean ezafi eutson izena «Guraso bako» egoki etorkiola, uste eban. Izen bigun-eztia. Jon'i biotza eruki-ibai biurtzen eutsona. Beti eritxon «Guraso bako»; mendi-egietan ziar artzain ebiñala agertu ta begirada zerutafez baruan maite-eztizko txufusta sortu-erazo eutsonen lez.

Apain jantzi, ereguz bete, bere omenez jai andia ospatu ta iñok ardurarik ezeban Aurtxoaren irudia al bait ondoen zaintzeko egiñalak egiteko erabagia artu eban. Joan yakon apal-apalik Lekaipuruari baimen-eske; ta arena bai poza, bayezkoa emon eutsonen! Iñundiko erak asmau ebazan Umetxoa adiguriz bete-

tako. Ta len aitzu-antzera baztertuta aurkitzen zan irudia egun gitxiren baruan bestiak aña nabari egiña izan zan. Jon'en alaitasuna ta Josurekiko eraspenna! Zoroak erabilala, esan zeikean.

Ordurarte baztertu-antzera egoan irudi onexek artu ebazan Jon'i 1605'garfen urtean, artzaña zala, iragaña izan yakon jayan egiñiko opari ta jaureskuntzak. Maratz baizen leyatsu ebiñan Jon lenengoz ospatu bear eban jairako zerak gertetan; eta 1631' ko Urte Bari-eguna aurfeko urtietan baño andikiroago jaitu zan. «Guraso bako» aurtxoari jai ospetsua egin eutsen. Afezkero be orobat egin zan; eta Josu'ren itz oneik «Egun ontan jai andia egingo daustazu» Jon Anai agurgariak osorik bete ebazan.

Baña oindiño etzeguan pozik, etziran bere gurariak zeatz bete. Jai ori gustiz ospatsu egin nai eban. Ofetarako, asmo andi bategaz, bere efira, Añorbe'ra, doya. Ango abade ta nagusiekaz itz dagi, eroyan burubidea azalduz. Dirurik asko ez eukiela -ta, eragozpen batzuk sortu afen, laster bat etofi ziran. Zelan ez? Beafezkoak ziran baimen eta agiri gustiak gertu ebezala, 1633'garfen urteko Urte Bariz nagusikiro ospatu eben añorbetar zintzo ta jaungoikozaleak Jon anai karmeldararak eraturiko jaya. Andik auffera be, efitxo aretan, Josu Aurtzoaren opazko jai begiko auxe izan da ospetsu ta edefena. Añorbetararak, urtean -urtean, zenbateraño biontz berroz jaituten izan daben eta oraindik jaituten daben adieraztea etxat ezez.

Igaz, ostera, irugarfen eun-urteufena zala-ta, iñondiko jayak egin ebezan. Irureun urte igaro afen, bizi irauten daben jayeguna etzan izan edozelangoa. Bai, argi dago; Jon anayak jai andia egin eutson bere aurtxo «Guraso bakoari», ta beti-beti iraun egian efitafen biontzetan ondo barfendua itxi eban Josu Umeaganako eraspenn eta maitasuna.

Josu'k, bariz, maitaleak bere omenez egin ebana ez eutson ordain barik itxiko. Gizakumeok iduri, eskar txarfecho ezpaita. Eufez ordaintzen dakiana baño.

S.

EROSI:

«Kisto'ren Antz-bidea» idazti oso edera (2'50).

«Grimm Anayen ipuñak» ipuin polit politik (3'00).

«Karmen'go Argia»n saltzen dira.